

noaua

Santueneko zubia itxi egingo
dute maiatzaren 14an

Eneko Balerdi dantzariaren
saioa Sariaaundi baserrian

Joxan Artze omendu zuten
larunbatean Sutegin



Izeberg, Azalera



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

**Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak**

www.lhusurbil.com

Administrazioa eta
kudeaketa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Energia eta ura
Produzio zerbitzu eta mantentze



**Maiatzak 10 eta 17
ATE IREKIAK**

943 36 46 00



OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



2. SAGASTIAK LORETAN OSPAKIZUNA

SAGARRONDOEN LORALDIAREN GORAZARRE EKIMENA **USURBILEN**

Maiatzak 10 larunbata, 17.30etan

Berreskuratutako XVI. mendeko **SARIAAUNDI DOLARE-BASERRIA**
ezagutzeko bisita gidatua. Tartean, XVI. mendetik gaur arteko musika kontzertua
eta dantza garaikide saioa, Eneko Balerdi dantzariarekin.

AGINAGAKO SARIAAUNDI BASERRIAN

Oharra: Kopuru mugatua. Zure bertaratzea baieztatu 943 36 03 21 telefonoan edo elkarte@noava.com helbide elektronikoan

Albisteak iruditan

Santuenuko zubia itxita, maiatzaren 14an



Goizeko 9:00etatik 12:30era itxiko dute Santuenuko zubia.

Udal langileek egin beharreko lan batzuk tarteko, Santuenuko zubia trafikoarentzat itxita egongo da maiatzaren 14an asteazkena,

goizeko 9:00etatik eguerdiko 12:30era. Abiadura mugatzeko koxkak jartzekoak dira. "Obrak ahalik eta azkarren eta txukunen burutzen saiatuko gara. Jen-

deari eskertuko zaio, beraien esku dagoen neurrian, gauzak errazten eta laguntzen ahalegintzen badi-
ra", ohartarazi dute Usurbilgo Udaletik.

Laburrean

Animalien zaintza arduratsua

Maiatzak 8, osteguna
19:00 Hitzaldia Potxoenean.

Maiatzak 10, larunbata

11:00 Tailer teoriko-praktikoa, Aranerrekako zelaian.
Izen ematea: Udaleko Zerbitzuen Saila.

Aste honetan hasiko da ahalduntze ikastaroa

"Norberaren zaintza somatikoa eta emozionala" ahalduntze ikastaroa emakumeentzat, ostiral honetatik, maiatzaren 9tik aurrera, 17:00-19:00 artean, Santuenuko Aldapeko lokalean. Udal Parekidetasun Sailak antolaturiko ekimena, Mainer Andonegik bideratuko du. Saioak, ostirale-
ro. Izen ematea itxita.

1964 eta 1971koek kinto bazkaria antolatu dute

1964koak ekainaren 14an elkartuko dira. Izena eman behar da aurrez, 18:00-22:00 artean. 667 055 553 (Julen) edo 655 715 084 (Rosa).

1971koak, maiatzaren 10erako jarri dute hitzordua, Saizar sagardotegian. Izen emateko epea, maiatzaren 8ra arte, Txapeldun tabernan. "Animatu!" luzatzen dute gonbita antolatzaileek.

noaia

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.com /// www.noaia.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaia.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarreki ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ceutako sarraskia deitoratu du udalak

Aurreko astean burutu zen osoko ohiko bilkuran izan zen. Aho batez onartu zuen udalbatzak, SOS Arrazakeriak aurkezturiko mozioa. Gertaera hauetan Guardia Zibilak izandako jarrera gaitzesten du, bertan jazotakoa ikertzeko batzorde independente bat sortzea eta erantzukizun politikoak hartu behar dituenak bere gain hartzea eskatzen du. Espainiako Gobernuari, "espainiar estatuko lurraldeetara iritsi nahi duen jendeari egun onartzen zaizkion eskubideak mugatzeko" lege aldaketarik ez dezala bideratu, galdegiten dio.

San Markoko aurrekontuen aurkako helegitea Usurbilgo Udalak, Hernani, Astigarraga, Pasaia, Lezo eta Oiartzungo udalekin batera, San Markok aurkezturiko aurrekontuei helegitea aurkeztu zietela berri eman zuten agerraldi baten bidez, apirila hasieran. Donostia, Urnieta, Lasarte eta Errenteriako hondakinen bilketaren parte bat ordaintzera zigortu nahi dituztela salatu zuten. Gai honi loturiko auzi-errekurtsorako abokatu eta prokuradore bana izendatu ditu Usurbilgo Udalak.

Udal Finantziaroko Foru Fondoa

"Udalek 2014an hiru hilean behin egingo diren 4 konturako entregetan konpentsazioak eginez itzuli ahal izango dute likidazioaren emaitza". Hala dio, azken osoko ohiko bilkuran Usurbilgo EH Bilduk aurkeztu eta gehiengo osoz onartu zen mozioak. Hiru puntuko testuak bat egiten du, Udal Finantziario-



Azken udalbatza plenoan hartu zen erabakia.

rako Foru Fondoa likidatzeko, Diputaziotik proposatu den irtenbidearekin:

1-Udaleko osoko bilkurak adierazten du Finantzen Euskal Kontseiluak 2014ko otsailean erabakitako irtenbidearen edukia babesten duela eta horrekin ados dagoela, irtenbide horrek Gipuzkoako udalen interesak arrazoizko modu batean asebetetzen baititu.

2-Gainera, ondo baloratzen ditu Foru Aldundiko arduradunek aurrelikidazio fasean (urria) nahiz Udalentzako Funtzaren likidazioaren xehetasunen berri emateko 2014ko otsailaren 17an antolatutako bileran emandako informazioa eta zuzeneko komunikazioa.

3-Eta, azkenik, adostasuna ematen dio alkate eta udalekin izandako bileran aurkeztu den itzulketa formulari, horren bitartez udalek 2014an hiru hilean behin egingo diren 4 konturako entregetan konpentsazioak eginez itzuli ahal izango baitute likidazioaren emaitza.

Egin da maiatzaren 25eko hautes-mahaletan egoteko zozketa

Hautes-mahaletan egotea egokitu zaienei, udaltzainen bidez helduko zaie jakinarazpena etxera. Edozein arazo edo desadostasunen aurrean, alegazioak aurkezteko aukera izango dute hautatuek.

Alegazioak non aurkeztu

Horretarako, Donostialdeko Hauteskunde Batzordera jo beharko dute, Atotxan kokatuak dauden auzitegiatar: Kalkutako Teresa plaza 1 (Atotxa), Donostia.

Tlf: 943 000 700 edo 943 000 728.

EH Bilduren kanpaina hasierako ekitaldia, ostiralean Dema plazan

Usurbilgo EH Bilduk deituta, arratsaldeko 19:00etan Dema plazan. Kartel pegadari ekingo diote jai giroan Udalak jarriak izango dituen paneletan, eta taldeko argazki bat ere ateratzekoak dira. EH Bilduren hautagaitzari babesa adieraziko dion hitzordura gerturatzeko gonbita luzatzen diete herri-tarrei.


Maiatzaren 16an ostirala, ekitaldi bat iragarri dute 20:00etan frontoian. Joseba Alvarez arituko da hizlari lanetan.

Liburutegiko Txokoa

Liburutegiak App eta Kirmen Uriberen "Mussche" aztergai

Gaurkoan, bi berriekin gatzokizue:

1. Liburutegiak Aplikazioa eza-gutzen? Baliabide berri honen bidez, zuen gailu mugikorretan (telefono edo tabletetan) ikusi ahal izango dituzue Liburutegi ezberdinetako albisteak, ekitaldiak, blogak; Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) liburutegietan mailegatuenak diren dokumentuen zerrenda kontsultatzeko aukera izango duzue, eta nola ez, sareko katalogoa erabiltzeko (bilaketak, mailegu eskaerak, erreserbak, epe luzaketak...). Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegiaren berri(ak) ere, bertan kontsultagai!



Deskarga ezazu aplikazioa Google Play-tik.

Aplikazioa zure IOS gailurako (iPhone/iPad) izan nahi baduzu, deskarga ezazu App Store-tik. Android-

erako ere erabilgarri dago; deskarga ezazu Google Play-tik. Informazio gehiago, Liburutegian!

2. Euskarazko beste irakurketa-topaketa bat prestatu dugu.

Gidaria, oraingo honetan ere, Pako Aristi izango da, eta komentatuko dugun liburua, Kirmen Uriberen Mussche. Eleberri honen aleak jada eskuragarri dituzue Liburutegian. Saioa, 16 urtetik gorako irakurleei zuzendua, maiatzaren 29an, ostegunarekin, arratsaldeko 19:00etan, izango da. Anima zaitetz parte hartzera, lagun giro ederra aurkituko duzu eta bertan!

Liburutegia non?

Iraza kalea 14an, Sutegi eraikinean. Eta sarean, helbide hauetan: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/ur-surbil/?lang=eu;> Twitter: @usurbil



Pako Aristik gidatuko du maiatzaren 29ko irakurketa.

Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia
www.noaia.com Komunitatea atalean.

Ospakizunik ez, baina mendizaleak bai Andatza Egunean



Usadioari jarraituz, herritar batzuk igo ziren Andatzara.

Ezohikoa izan da aurtengo Andatza Eguna, ospakizunik gabekoa, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak, mendia dagoen egoeran ikusita, antolaketa lanetan laguntzeari uko egin oste-

an. Urteroko ohiturari hutsik egiten ez dioten herritarrek izan ziren ordea, maiatzaren 4an. NOAUA!ra taldeko argazki hau bidali digun usurbildar koardila, horren lekuko.

Bertsio Gaua lotzeko bilera

Txozna Batzordeak Santixabeletako Bertsio Gaua uztailaren 5ean ospatzea erabaki du, larunbatez beraz. Orain, bilera deitu dute, maiatzaren 13rako, asteartea, 19:00etan Potxoenean. "Musikari, musikazale, eta parte hartzeko interesa duen orori bertaratzeari eskatzen diogu", luzatu dute gonbita Txozna Batzordetik.

Egitarau diseinu lehiaketa

Maiatzaren 15ean amaituko da lanak aurkezteko epea. Diseinua, jaietako egitarauan oinarritu beharko da. Irabazleak, 500 euroko saria jasoko du. Argibide gehiagorako: 943 371 999 edo kultura@usurbil.net.

Txupinazioa nork bota beharko luke?

Jaietako txupinazioa nork bota erabakitzeke aukera duzue. Bidali zuen proposamenak, kultura@usurbil.net helbidera, edo helarazi Potxoenea edo Sutegi udal liburutegira maiatzaren 30a baino lehen.

Udako txokoak Zubietan

"Aurten ere Usurbilgo udalaren laguntzarekin Zubietan Udako txokoak antolatzen ari gara", hala jakinarazi digute ohar bidez.

Txokoak 3 urtetik (2011 urtean jaietakoak) 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude.

Uztailean eta abuztuan

Uztailean eta abuztuan Eskola Txikitan elkartuko dira. Orduategia 9:30etik 13:30era izango da.

Izen emate orriak ikastolan eta Barazar tabernan eskuratu daitezke eta Udaletxeko buzoian bota beharko dira (Alamandegin).

Izena emateko azken eguna: maiatzak 25. Edozein zalantza izanez gero deitu telefono hauek: Josune: 636 719 301 / Bakartxo: 608 663 047.

Kuota, ume kopuruaren arabera

Kuota izena ematen duten haurren kopuruaren arabera zehaztuko da.

Udajolaseko plaza ordaintzeko azken egunak

Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkar-teak uztaileko antolatutako aisialdiko ekimenean izena eman zutenek, ostegunera arte, maiatzaren 8rako arteko epea dute, ordaintzeko egiteko. Prezioa, plaza bakoitzeko 79 eurokoa da. Familia ugarien kasuan, 63 euro (kasuotan, familia ugarien txartelaren kopia ekarri behar da NOAUA!ra). Ordaintzeko Euskadiko Kutzako kontu zenbaki honetan egin behar dira: 3035 0140 34 1400025811. Ez ahaztu, ordaintzea egiterakoan haurren izen abizenak adierazi. Ordainagiria jaso eta NOAUA!ra ekarri, ostegun hau baino lehen. Argibide gehiagorako: 943 360 321 edo elkartea@noaua.com



Ordainagiria NOAUA!ra ekarri behar da.

Ate irekien egunak, Lanbide Eskolan

Datozen bi larunbat hauetan, maiatzaren 10ean eta 17an, goizeko 11:00etatik 12:30etara. Bertaratu asmo duenak, aurrez erreserba egin behar du Lanbide Eskolara deituta: 943 36 46 00. Informazio gehiago: lhusurbil.com

Haurtzaroko lehen sorospenen ikastaroa

Maiatzaren 12tik 16ra izango dira saio teoretiko-praktikoak, 10:00etatik 12:00etara DYAK Munalurra 26an duen egoitza berrian. Haurtzarolari loturiko istripuen ekiditea eta lehen sorospenen inguruko ikastaroa izango da. Izen emateko eta argibide gehiagorako: 943 46 46 22. Prezioa, 60 euro. Plaza kopuru mugatua.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

**943 24 01 76 eta
649 435 470**
errazkinsl@euskalnet.net

Oztaran auzoa 33, URNIETA

II. Sagastiak Loretan zikloaren eskutik, dantzak eta musikak giroturiko bisita gidatua Sariaaundira

I. Sagastiak Loretan zikloko ekitaldi berezi baten atarian gaude. Iaz bezala, aurten ere bisita gidatua antolatu dugu Aginagako Sariaaundira. XVI. mendeko dolare-baserria barrutik ezagutzeko aukera egongo da, larunbat arratsaldeko 17:30etan. Bertaratze-ko asmoa duzuenok, lekua hartzeko deitu NOAUA!ra (943 360 321). Gehiagorako ere emango du bisitak. Hirukote baten musika saioaz eta Eneko Balerdi aiarraren dantza garaikide emanaldiaz gozatu ahalko da. Ibilbide oparua osatzen dabil Balerdi dantza munduan. Horretaz eta larunbateko hitzorduaz elkarrizketatu dugu.

Noiz eta nola abiatu zenuen dantzari gisa, zure ibilbide profesionala?

Eneko Balerdi. Euskal dantzetan aritu nintzen bi urtez. 11 urtetatik edo utzia nuen. Batxilergo ikasketak, goi mailako elektronikako modulu bat egin nuen, lanean aritu nintzen. Baina berriz ekin nion dantzari, Donostian akademia bila hasi nintzen. Dantza modernoa lantzen hasi nintzen. Handik esan zidaten, Lasarten izen ona zuen irakasle bat bazela, Iñaki Landa. Hor hasi zen neure dantza garaikideko ibilbidea. 2004an, 23 urterekin. Gero Londresera joan nintzen.

23 urterekin. Berandu edo



“Sagarra eta sagarraren prozesu osoa”, horretan oinarrituko da dantza saioa

Larunbat honetan, 17:30ean, Aginagako Sariaaundin arituko da Eneko Balerdi dantzaria (argazkiak: Andoni Mutiloa).

ezohikoa da adin horretan dantza ibilbideari ekitea?

Dantza klasikoko ibilbidea hasi nahi izan banu, adin horretan berandu izango zen ziur. Ikasketak garaikideak aukeratu nituen Londresko unibertsitatean. Gehienak baino helduagoa nintzen. Baina nire adinekoak eta ni baino helduagoak ere baziren. Ez zen traba izan. Dantza garaikideak beste ikuspegi bat du, dantza eta gorputza, eta mugimendua ulertzeko, pertsonaren mugimendu pertsonal hori esploratu ahal izateko teknika jasotzean oinarritzen da formakuntza. Adinak ez du hainbesteko zerikusirik.

Dantza garaikidea nola ulertu eta islatzen duzu emanaldietan?

Neure dantza lanek badute nortasun bat, eta nortasun horretan marrazten da nik izan dudana formakuntza. Formakuntza teknika garaikideetan baino gehia-

go teknika modernoetan egin nuen. Orduan, gorputzaren forma, indarraren erabilera, eta zenbaitetan forma estetiko bera, garaikidean baino aro modernoko dantzan, 50. hamarkadan batez ere garatzen hasi zen forma estetiko horretan kokatu daiteke. Hortik badu zerbait eta gero beti hortik abiatuta, nik neure mugimenduen bilaketa pertsonal bat egiten dut, marko horietatik abiatuta eta landu nahi dudana, gai, kontzeptu edo kontaktetan murgiltzeko. Bilatzen ditut, bai formak, irudiak, gorputz testurak edo kalitateak, soinuak, gero koreografia lan horretan sartuko direnak, gaierekin lotura dutenak.

Koreografoa, dantzaria, irakaslea... Zer alor duzu lan-duena?

Nire kasuan, hasieran dantzari, interprete gisa hasi nintzen lanean. Euskal Herrira etortzea erabaki nuen unetik, jakinaren

gainean etorri nintzen hemen konpainiak eta dantza egiteko aukerak murriztagoak direla, Erresuma Batuan baino. Irakas-kuntzan hasi nintzen. Lehendik ere lan honetan aritua nintzen eta gustuko nuen. Formakuntza gehiagoren beharra sentitzean, master bat egin nuen, hortik hasi nintzen aukerak egiten. Hezkuntza edo interpretazioaren artean, hezkuntza lehenetsi dut. Eta gaur egun, gehienbat hezkuntzan, dantzaren edo arte hezkuntzan nabil.

Sagarraren bueltan

Kasuotan, dantzaria espaziora egokitzen da?

Eneko Balerdi. Lekura egokitu-tako artelanak, lan modalitate bat da, eta lan mota horrek eskatzen duena da espazio horrek dituen egitura fisiko, kolore, paisaia, argiztapen, horiekin guztiekin elkarrizketatuko duen mugimendu proposamen bat sortzea. Kasu honetan, sagarra eta sagarraren prozesu osoa, hori da nire ideia, irudi iturria, mugimenduen kalitateak eta bilatzeko begirada hor daukat. Eta gero leku jakin bakoitzean, lan jakin bakoitzak eskaintzen dizkit mugimendu kalitate, forma, soinu aukera batzuk edo besteak. Espazio horretako gainerako elementu guztiak kontuan hartzen saiatzen naiz, neure presentzia hori horra eramaterako garaian, horra egokitzeko eta hor halako armonia sortzeko.

**TXAPELDUN
TABERNA**
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurren 2, 943 11 82 53

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

**ARRANDEGIA
PELLO**
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

“Interes handia sortzen dit Sariaaundi baserriaren espazioak”

Aginagako Sariaaundin egon zara? Zer iruditu zaizu lekua?

Eneko Balerdi. Kanpotik eza gutzen nuen, barrutik ez nuen ikusia. Interes handia sortzen dit, nolabait testigantza modukoa jasotzen duelako espazio horrek, hor egiten zen lanaren ingurukoa. Sartzean eta egitura horiek ikustean, jada irudikatu zenezake, mugimendua ikusi dezakezu, soinuak entzuten dituzu eta polita da gainera, interpretatzeko aukera ematen dizula, arteak eskaintzen dizu hori. Espazio horretan egotean norberak eraiki behar du, hor egongo zen hori. Ni ere horretan arituko naiz. Nik ere zerbait erantsiko diot espazio horri. Nolabait ere jendeari lan mota edo lan egiteko modu, edo gorpuzkera, neke sentazio ezberdinak adierazi diezazkioket.



Saioa “intimoa, goxoa eta zaindua izango dela irudikatzen dut”.

Omenaldi modukoa izango da beraz, historikoki bertan egin den lanari?

Bai. Maiatzaren 10ean Sariaaundi etxean arituko gara. Neure emanaldiaz gain, etxearen egitura ezagutzeko parada izango da. Eta baita musika hirukote bat entzutekoa ere. Eta nolabait, azkenean langile

ezberdin guzti hauen, gu guztion lanak elkarrekin nola ezkontzen diren eta ze informazio, irudi, soinu berri sortzen eskaintzen dugun ikusteko aukera ona izango da. Intimoa, goxoa eta zaindua izango dela irudikatzen dut. Arratsaldeko bisita polit bat izan daiteke.

Attrium musikari hirukotearen emanaldia



Eneko Balerdirekin batera, Attriumek musikaren bidez herri honen sustraietara bidaiatzea proposatzen digute.

Eneko Balerdi dantzariarekin batera, Ainhoa Franco (ahotsa), Jurdana Otxoa (bibolina) eta Maider Zapirain (txeloa) Attrium hirukotearen musikaz

ere gozatu ahal izango dugu larunbatean Aginagako Sariaaundi baserrian. XVI. mendeko dolare-baserrian hitzartu gaituzte, garai hartatik gaur-

dainoko musika emanaldi goxoa entzuteko. Musikaren bidez, herri honen sustraietara bidaiatzea proposatzen digute.

II. Sagastiak Loretan, datozen ekitaldiak

Maiatzak 9, ostirala

19:00 Sagar muztio dastaketa eta sagardoa dastatzen ikastea, Usurbilgo Gaztetxean. Guillermo Castaños enologoaren laguntzarekin.

Maiatzak 10, larunbata

17:30 Aginagako Sariaaundi Dolare-baserria ezagutzeko bisita gidatua.

Maiatzak 15, osteguna

San Isidro Eguna

10:30 Meza Nagusia Salvatore Elizan. Ondoren, hamaiketako eta herri kirolak frontoian. Olaso eta Azurmendi bertsolarien saioa. 14:00 Bertso-bazkaria Olaso eta Azurmendi bertsolariekin Artzabalen (txartelak salgai 25 eurotan Artzabal eta Alkartasuna Kooperatiban, maiatzaren 12ra arte). 18:30 Kalejira Usurbilgo erraldoi konpart sarekin.

Maiatzak 17, larunbata

Iluntzean, sagardo dastaketa gidatua eta afaria Saizar sagardotegian, Fernando Vadillo enologoaren eskutik. Afaria eta dastaketa: 25 euro. Saizar sagardotegian Informazioa: 943 36 45 97.

Maiatzak 18, igandea

XXXIII. Sagardo Eguna.

Goizean zehar, “Usurbilgo base-rietako dolareen argazkiak” erakusketa, Sutegiko aretoan.

11:30 Hasiera ekitaldia.

17:00 “Ingo al deu” frontoian.

Arratsaldean, “Elektro Patxaranga” kaleetan zehar.

Elkarlanean:

Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna, Usurbilgo Base-ritarren Kooperatiba, NOAUA! Kultur Elkartea, Usurbilgo Sagastia E.M., Usurbilgo Gaztetxea, Sagardoaren Unibertsitatea, Saizar eta Urdaira Sagardotegiak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.

Igande honetan, "Pilotakadaz pilotakada"



Aurreko larunbatean aurkeztu zuten eskualde mailako egitaraua, Usurbilen.

Euskal presoaren sakabanaketaren amaiera eskatzeko "Pilotakadaz pilotakada" ekimena antolatuko du Etxerategi. Buruntzaldeko hainbat herritan jokatu da eskualde mailako "txapelketa". Maiatzaren 10ean Hernanin, Lasarten eta Orion, maiatzaren 11n Usurbilen eta maiatzaren 18an Andoainan.

"Buruntzaldeko preso eta iheslarien senideok ekimen baten berri ematera gatoz", halaxe hasi zen aurreko larunbatean frontoiaren ondoan eskaini zuten prentsaurrekoa. "Euskal Herrian bizi dugun egoera berri honetan, dispertsio politikak inoiz baino indar gehiagorekin jarraitzen du, preso eta senideon eskubideen urraketa areagotuz. Xantaia politiko bezala erabiltzen dituzte gure senideak eta ondorioz gu, senideok, ere bai. Hau guztia salatu eta gure senideen eskubideak aldarrikatu eta gizarte-ratzeko dator ekimen hau".

Pilotakadaz pilotakada kirol kutsuko ekimenaren bitartez, gizartea kontzientziatu eta inplikatu nahi dute, "guztion artean presio bidez egoera hau aldatu eta gure senideen eskubideak errespetatuak izango direla uste osoa baitugu".

Hala, Etxerat elkarteak sakabanaketaren aurka ekimen nazional berri bat antolatuko du Euskal Herri

osoan. "*Pilotakadaz pilotakada* deitu diogu eta sakabanaketaren aurka herrietako frontoiak betetzea du xede". Hona eskualde mailako egitaraua:

Maiatzak 10 larunbata, Hernanin, Lasarte-Orian eta Orion

Maiatzak 11 igandea, Usurbilen

Usurbilgo frontoian

11.00 – Mutil ekipoa palaz.

11.45 – Nesken ekipoa palaz.

12.30 – Pala adaptatua ahalmen urrikoen artean.

13.15 – Eskuz kanporaketa herrikoia. Izena emateko: Aitzaga, Txiriboga eta Zendoia tabernetan.

Bukaeran, trikipoteo solidarioa kaxkoan.

Edozeinek har dezake parte

"Eskuz kanporaketa herrikoia" delakoan, edozeinek parte har dezake. Tantoa galtzen duena kanporatua izaten da eta hurrengoa sartzen da jokora.

"Bost finalista atera nahi ditugu herri bakoitzetik, ekainaren 29an Gipuzkoa mailan egingo den *Pilotakadaz pilotakada* norberaren herria ordezkatzera joan daitezen", Etxerategiaren prentsaurreko bidez aditzera eman zuten.

Eskaintza zabala uztaillean, Kiroldegian

Batetik, lineako patinen ikastaroa antolatuko dute 8-12 urte arteko haurrentzat. 10 eguneko iraupena izango du, uztailaren 7an hasi eta 16an amaituko da. Ordutegia: 11:00-12:00. Prezioa, 35 euro.

8-12 urte arteko gaztetxoentzako ekimen gehiago. Kirolarekin Jolasean antolatuko dute. Kirol jarduerak ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute, hamabostaldi baterako (uztailaren 1etik 16ra edo uztailaren 17tik 30era, 115 euro) edo hilabete osorako (uztailaren 1etik 30era, 230 euro) izena ematen dutenek; igeriketan (waterpolo, estiloak, lehenengo laguntzak...), herri kirolak (txingak, zakuak, lokotxak, sokatira...), pilota palaz, tenis, badminton, mendi bizikletekin irteerak, lineako patinaia, txangoak (hondartzara, mendira...). Taldeak gehienez 12 kidekoa izan beharko du, gutxienez zazpikoa.

Haur eta helduentzat

Uztailerako haur eta helduentzako ikastaroak ere antolatuko dituzte Oiardo Kiroldegiko igerilekuan. Hobekuntza saioak helduentzat, 1-4 urte arteko haurtxoentzako ikastaroak, igeriketa hastapena 3-4 edo 5-6-7 urtekoentzat. Honez guztiaz gain, lehorreko ekintzak ere antolatuko dituzte uztailerako. Mantentze gimnastika, pilates, zumba, aerobik eta spinning. Klaseak goiz nahiz arratsaldean.

Informazio gehiago, Oiardo Kiroldegian: 943 372 498 edo kirola@usurbil.net



Uztailaren 7an hasi eta 16an amaituko da lineako patinaia ikastaroa.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Txaramuntoko behin behineko zerrendak

Txaramuntoko alokairu sozialeko etxebizitzaren esleipen prozesuko behin behineko zerrendak onartu ditu Usurbilgo Udalak; deialdira aurkezturiko 41 eskaeretatik 29 onartu eta 12 baztertu ditu behin behinean. Orain, zerrenda hauei alegazioak aurkezteko aukera egongo da, maiatzaren 13ra arte. Une horretatik aurrera, aurkeztu daitzkeen alegaziook aztertuko ditu Udalak eta onartu eta bazterturikoen behin betiko zerrendak prestatuko dituzte.

Gerora zortzi etxebizitzaren zozketa egingo da, kupoka:

1. taldea: Ezinduak. Etxebizitzatza bat.

2. taldea: Etxebizitzaren premia berezia duten eskatzaileak. 3 etxebizitza.

3. taldea: Etxebizitzaren premia duten eskatzaile edo bizikidetzaren unitate espezifikokoak. 3 etxebizitza.



41 eskaeretatik 29 onartu eta 12 baztertu dira behin behinean.

4. taldea: Kupo orokorra. Etxebizitza bat gutxienez.

Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, honakoa da Txaramuntoko alokairu sozialeko etxebizitzaren esleipen prozesura aurkeztu den eskaera kopurua, taldeka sailkatuta:

Behin behingoz onartuak: 29 eskaera.

1. taldea (ezinduak): eskaera 1.
2. taldea: 3 eskaera.
3. taldea: 13 eskaera.

4. taldea: 12 eskaera.

Behin behingoz baztertuak: 12 eskaera.

1. taldea: 0 eskaera.
2. taldea: 4 eskaera.
3. taldea: 5 eskaera.
4. taldea: 3 eskaera.

Guztira: 41 eskaera.

1. taldea: eskaera 1.
2. taldea: 7 eskaera.
3. taldea: 18 eskaera.
4. taldea: 15 eskaera.

Larunbatean, Gure Esku Dagoren giza katea Donostian

400 Baietz erronka beteta, 500 lagunetara iristea da orain Gure Esku Dago Usurbilen asmoa. "Azken momentura arte izango da izena emateko aukera (bertara izena eman gabe agertzen dena ere ongi etorria izango da, noski!), baina guri ongi datorkigu zenbat izango garen jakitea, batez ere, autobusak antolatzerako unean". Maiatzean astero jarriko dute mahaia. Asteon, ostiralean, 19:00etatik 22:00etara, Sutegin.

Giza katea Donostian

Larunbatean, maiatzak 10, giza katea egingo dute Donostian. "Nahi duen orok parte har dezake", azaldu digute bilgunetik. Honakoak dira hiru abiapuntuak: Antiguako tunela, Bilbo plaza eta Sagues. Ordua bera da guztietan: 12:30ean. Eta 13:00ean Bulebarrean elkartzea espero da.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI BAI

Larunbata 10 denok Donostiara!
18:00etan Konstin

Maiatzak 16 EKITALDIA
20:00etan Usurbilgo Frontoian

Hizlaria: Joseba Alvarez

EMAN BOTOA **ehbildu**
herrikerabaki

Izeberg: “Beste ezinegon batzuk genituen

Lehenik lokaleko eta gero grabazio estudio bateko lau hormen artean urtea eman ostean, oholtza gainera igotzeko gogotsu, irrikitan dira. Proiektu berria sortzen, mamitzen, urtuezina izango den Izeberg-a eraikitzen igaro dute azkenaldi luze hau. Lan handia izanda taldearentzat, baina eraberean esperientzia aberasgarria. Emaitza plazaratzeko ordua da orain. Larunbata heltzeko zain dira jada. Maiatzaren 10ean igoko dira gaueko 23:00etan, Usurbilgo Gaztetxeko oholtza gainera. Dena ematera datoz, talde eta disko berri batekin, estreinako emanaldiarekin, aurrez herriko beste taldeetatik ezagunak izango zaizkizuen Izeberg taldeko kideak.



Maiatzaren 10ean igoko dira gaueko 23:00etan, Usurbilgo Gaztetxeko oholtza gainera. Izeberg taldearen lehen kontzertua izango da, beraz, larunbat honetakoa (azaleko argazkia eta elkarrizketakoak: Ibai Arrieta).

NOAUA! Izeberg-ak zer sinbolizatzen du zuentzat?

Ixak Arruti: Izeberg batekin konparatuz, sakonean dagoela benetako izebergaren izaera. Itxurari edo formatuari garrantzia handirik eman gabe, benetan gure musikan eta lauron baturan gehiago sartu gara. Sonoridadez gustatzen zaigu izena.

Zuen lehenagoko musika taldetan jarraitzen duzue? Hau proiektu paralelo bat da?

Antton Aranburu: Proiektu hau sortu zenetik entseatzeko gabilta, baina aldi berean beste taldeekin jarraitzen dugu. Odolaren Mintzoak disko berria atera du, Hotzikara ere diska berrirako abestiak sortzen ari da. Mendeku Itxua ere bai.

I.A.: Askok galdetu digute, baina inork ez du bere taldea utzi.

Aurretik kontzerturik eman gabe, estreinako emanaldian lan berria aurkeztuko duzue. Nolatan erabaki duzue hala

IXAK ARRUTI

“Izeberg-en, rock-aren barruan, sekzio erritmiko gogorak lantzen ditugu, irmoak. Jendeak ez dezala pentsatu, adinarekin bigundu garenik”

egitea?

A.A.: Beste taldeak baditugu eta kontzertuak ematen ditugu. Kontzertuetako beharra asetua genuen.

Jokin Irastorza: Kantak sortzen eta entseatzeko hasi ginen. Grabatu beharra zegoela eta grabatzera jo genuen zuzenean.

Beste musika taldeetatik zatozte. Taldekide bakoitzak, zer ekarpen egin diozue talde berriari?

I.A.: Beste ezinegon batzuk genituen eta horregatik sortu dugu talde hau, beste musika estilo bat jorratu nahi genuelako. Laurontzako esperientzia

berria da. Izeberg talde jaio berri bat da, oraindik kontzerturik ez dugu eman. Esperimentatzen gaude, ez dugu estilo finkaturik. Laurok zer aportatzen dugun? Gure lekua bilatzen ari gara taldean. Guretzako ere esperientzia berri bat da, beste jotzeko era bat da. Bilaketa horretan gabilta oraindik.

Zuen jatorrizko musika taldeen isla saihestu nahi izan duzue? Edo bide eman diozue?

I.A.: Neure kasuan heavya lantzen dut Mendeku Itxuan. Beste estilo bat nahi nuen, melodia goxoagoarekin. Edozein antzekotasun kasualitatea da. Gure abesti bateko letrak dioten moduan, “iragana oroitzuz, etorkizuna amestuz”. Izan garena hor dago, baina aurrera begira gauza berriak jorratu nahi ditugu, iragana ahaztu gabe.

Izeberg-en, rock-aren barruan, sekzio erritmiko gogorak lantzen ditugu, kontundenteak. Jendeak ez dezala

pentsatu, adinarekin bigundu garenik. Abesti guztiak barrutik ateratzen saiatu gara. Jendea kantak entzutean epel ez uztea. Barruko zerbait mugiarazten saiatu gara.

Beñat Urteaga: Baxujolea naizen aldetik, betiko ohiturak ateratzen dira talde berrian ere. Noski dagoela aurreko taldeen eragin bat. Bakoitzak harelere, bere esentzia eta jotzeko modua du.

IZEBERG, “AZALERA” CD

Ixak Arruti: ahotsa, kitarra.
Antton Aranburu: Kitarra.
Beñat Urteaga: baxua.
Jokin Irastorza: bateria.



Hauxe da diskoaren azala.

eta horregatik sortu dugu talde hau”

Zazpi abesti, zer diote kanta hauek?

I.A.: Bat herri-harresiari buruzkoa da, “Naizena” herri honen inguruko kritika, guretzat kontzertu bat eskaintzea zer den jorratzen duen abesti bat dago. Kanta bat sortu dugu Jon Uriberentzat. Abesti hunkigarria. Letrak sortzeko, kolaboratzaile izarrak izan ditugu; Beñat Gaztelumendi, Arkaitz Oiartzabal “Xamoa” eta Jon Martin bertso-lariak.

Idiazabaletik Higainera, lan berria ekoizteko bidaia nola izan da?

A.A.: Lan nekeza batetik, baina oso aberasgarria bestalde. Oso eskertua. Batez ere emaitza ikustean. Orduan konturatzen zara zenbat kostatzen den gauzak ondo edo zuk nahi duzun erara egitea. Baina oso esperientzia positiboa izan da deontzat. Nekeak ahaztuko dira eta emaitzarekin geratuko gara.

Aurreko esperientzien eraginez, exijenteagoak izan zarete zuen buruekin?

I.A.: Bai, dudarik gabe. Aurreko diskoak grabatuak gara denok eta badakigu estudio batean nola lan egiten den. Ahalik eta ondoen egitera joan gara. Ondo, oso gustura geratu gara bai Idiazabalgo lanarekin, eta gero Haritz Harreguy egindako lanarekin, lanari eman dion indarrarekin. Emaitzarekin txoratu ta gaude, oso gustura.

Kontzertu gosea izango duzue honez gero?

I.A.: Gogo latza. Urtebete darabagu abestiak lantzen. Kontzerturik eman gabe lan bat grabatu dugun lehen aldia da.

A.A.: Irrika badago. Topera ari gara entseatzan. Jende askok galdetzen digu herrian eta herri-kanpo, zer moduz goazen, ia lana noizko dugun.

B.U.: Ilusionatuak eta gogotsu.



Maiatza bete kontzertu. “Azalera” disko berriko zazpi abestiak eta hainbat bertasio joko dituzte larunbat honetan.

ANTTON ARANBURU

“Euskal Herrian ez dago musika mota hau lantzen duen talde askorik. Gustatzea espero dugu”

Hilabeteak daramatzagu oholtza gainera igo gabe eta nabari dugu. Kantak jotzerakoan, argi eta guzti zuzeneko emandian ederki aterako dela irudikatzen dugu.

Gaztetxean estreinakoz zuek ikustera joango direnentzako lehen hitzak...

I.A.: Jendeari esan lasai joan eta gozatzeaz arduratu dadila. Gainerakoa, gure esku. Lan berriko zazpi abestiak, eta pare bat bertasio prestatu ditugu. Animatu eta etorri kontzertura, ondo pasako duzue.

A.A.: Guk gozatu egingo dugu eta besteek ere gozatzea nahi dugu. Euskal Herrian ez dago musika mota hau lantzen

duen talde askorik. Gustatzea espero dugu. Guk bezain ondo pasatzen badute, horrekin konforme. Diskoak ere salgai jarriko ditugu emanaldi gauean.

KONTZERTU BIRA

Maiatzak 10, larunbata

23:00 Disko aurkezpena Usurbilgo Gaztetxean. Diskoak salgai, 5 eurotan. BH Roja, Materia Gris eta Dj Plan. Sarrera doan. Kontzertu gauean jasotako laguntza, Gambiara arropa bidaltzeko elkartasun ekimenara bideratuko dute.

Maiatzak 16, ostirala

20:00 Aurkezpen kontzertua Donostiako Dokan, Madeleine taldearekin.

Maiatzak 24, larunbata

23:00 Gau Beltza Aginagako Eliza Zaharrean: Su Ta Gar (“Bizirik gaude” diskoaren aurkezpena), Izeberg eta Legez Kanpo. Sarrerak 8 eurotan. Aurrez salgai: Aitzagan, Aginagako Arrate Egoitzan, Lasarteko Ilargin eta Orioko Kalakarin.

Maiatzak 30, ostirala

Lasarteko Zabaleta auzoko jaietan kontzertua eskainiko dute, Itzartu taldearekin.


Ekainak 20, ostirala

23:00 Kontzertua Kalezarko San Joan jaietan, beste talde batzuekin batera.

Gaztea Maketa Lehiaketako finalisten artean

Oraindik estreinako diskoak aurkezteke duten arren, Izeberg taldearen abestietako bat, “Lehenengo ilaran” izenekoa, Gaztea irrati katearen Maketa Lehiaketako 25 finalisten artean sailkatu da jada. Ostegun honetara arte, maiatzaren 8ra arte, abesti honen aldeko bozka eman dezakezue

eitb.com/gaztea atarian sartuta. Ostegun gau honetan bertan, Gaztea irrati kateko “BAldea” saioan iragarriko dute Entzuleen Saria norentzat izango den, baita Maketa Lehiaketako bigarren talde bozkatuena- ren izena ere. Epaimahaia aukeratu- tutako hiru finalisten izenak ere jakinaraziko dituzte.



25 finalisten artean aukeratu izan da “Lehenengo ilaran” abestia.

Hunkigarria

JOXAN ARTZE OMENDU ZUTEN LARUNBATEAN, "NOLA BELZTU BEHAR ZURIA" SAIOAREN AMAIERAN

Larunbatekoa definitzeko hitz bat aukeratu beharko balitz, hitz horrexek laburbilduko luke ondoen: hunkigarria. "Nola belztu behar zuria" ikuskizuna iragarria zegoen Sutegin baina, funtsean, Joxan Artze omentzeko saioa izan zen. Euskal kulturaren erreferentzia handia, azken hamarkadetako kultur mugimendua ulertzeko izen propio horietako bat. Jexux Artze Kultur Elkartek, beraz, Joxan omentzeko baliatu zuen larunbateko ekitaldia. Eta bertaratu ziren ikusleek, luzaroan gogoan izango duten omenaldiaren lekuko apartak izan ziren.

Bete egin zen Sutegi. Baziren Usurbildik kanpo ere ekitaldira propio etorri ziren lagun asko. Gazte zein heldu. Saioaren ondoren baina, iragarri gabe zegoen omenaldi baten lekuko izan ziren. "Nola belztu behar zuria" errezitaldi musikatu amaitu berritan, Jexux Artze Kultur Elkartekoak igo ziren oholtza gainera. Esker oneko hitz batzuk irakurri zituzten eta ondoren Joxan Ar-



Joxan Artzek hitz sentituak izan zituen bere emaztearentzat eta bere arrebarentzat. Txalo zaparrada luze batekin erantzun zioten ikusleek.

tze gonbidatu zuten oholtza gainera. Jose Luis Zumetaren lan batetik bere alaba Uxoak sortutako serigrafia bat eman zioten oroigarri bezala Joxani. Eta txalapartari bezala egin duen ekarpena eskertzeko, Zuaznabar sendikoez txalaparta jo zuten. Artze anaiek

Zuaznabar familiakoekin ikasi zuten bere garaian txalaparta jotzen. Eta oso sentikorra izan zen Zuaznabar eta Artzearen arteko besarkada.

Jarraian, hitza eman zioten Joxan Artzeri. Urduri eta hunkituta igo zen oholtza gainera. Hitza hartu zuenean, lehe-

nik eta behin eskerrak eman zizkien antolatzaileei, bere anaiaaren aldeko ekitaldiak antolatzen jarraitzen dutelako urtero.

"Nola belztu behar zuria" ekitaldiaren berri izan zuenean, jakinmin handia piztu zitzaion Joxan Artzeri. Hala adierazi zuen bertaratu zirenen aurrean. Kezka ere bazuen, ia zein poema hautatuko ote zituzten, eta horiek gero nola harilkatuko zituzten. Izan ere, azken bi liburuetan poemaren arteko loturari garrantzia handia eman baitio Usurbilgo poetak.

Pozik azaldu zen Bide Er-tzean-ek, Oier Guillanek eta Asier Sarasolak egin zuten aukeraketarekin. Eta banan bana zoriondu egin zituen Sutegin eskaini zuten saioarengatik. Bertaratu zirenei eskerrak eman ondoren, hitz sentituak izan zituen bere emaztearentzat eta bere arrebarentzat. Txalo zaparrada luze batekin erantzun zioten ikusleek.

Aldamenean duzue Jexux Artze Kultur Elkartekoek Sute-giko omenaldian irakurri zuten esker oneko idatzia.

"Asier ETA biok", ostiral honetan 3 eurotan Sutegin

Espainiako herritarrei euskal gatazka beste era batera erakusteko eginiko ahalegina da Asier ETA biok filma. Aitor eta Amaia Merino anai-arrebek zuzendu dute proiektua, eta ostiralean ikus izango dugu Sutegin.

Filmak Asier Aranguren pre-soa eta Aitor Merinoren adiskidetasuna du oinarri. Baina helburua euskal gatazkaren beste ikuspegi bat azaltzea da. Meri-



no anai-arrebek urteak daramatate Euskal Herritik kanpo. Ezagutu duten ezjakintasunak bultzatu ditu filma egi-tera.

Maiatzak 9 ostirala

- 22:00etan, Sutegin
- Sarrera: 3 euro Sutegin, alde zurretik 3 eurotan Lizardin.
- Antolatzailea: Jexux Artze K. E.

NOAUA!ko bazkideen artean, zozketa berezia

"Asier ETA biok" eta "Hiru" antzerkirako bina sarrera ditugu zozketa zozketa NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen artean. Maiatzaren 9ra arte duzue emailaz interesa agertzeko epea.

Zer egin behar da? Email bat idatzi erredakzioa@noaua.com helbidera. Interesa agertzen duten bazkide guztien artean zozketa egingo dugu. Maiatzaren 9an ostirala, noaua.com web orrian emango ditugu izenak aditzera.



Jexux Artze K.E.

JOXERRA FURUNDARENA

2014-05-03

2002an **Jexux Artze** txalapartariaren heriotzaren ondoren bere aldeko omenaldi bat egiteko herrian talde bat sortu zen. Geroztik **Jexux Artze Kultur Elkarte**a bezala lan egin dugu, beti ere maiatzaren inguruan kultur adierazpide ezberdinetako ekitaldiak antolatuz.

Jexux Artzek Ez Dok Amairu kultur mugimenduan parte hartu zuen, XX. mendeko hirurogehiko eta hirurogehitamarreko hamarkadetan euskal musikaren eta literaturaren berritzean eta indartzean lan handia egin zuen taldean. Denok dakigu euskaldunentzako ze urte zailak izan ziren haiek.

Aukera izan dugun bakoitzean saiatu gara **Ez Dok Amairu** mugimenduarekin zerikusia izan zuten artistak oholtzara ekartzen edo haien aldeko ekimenak egiten (**Jexux Artze**, **Mikel Laboa**, **Xabier Lete**, **Oskarbi taldea**, **Benito Lertxundi**...).

Bada denbora **Joxan Artze**ren ere zerbait egin nahi genuela.

Mila esker, Joxan



Zumetaren serigrafia bat oparitu zioten Joxani. Argazkia: Ibai Arrieta.

lazbi poema liburu argitaratu zituen *Heriotzaren ataria dugu bizitza* (Elkar) eta *Bizitzaren atea dukegu heriotza* (Elkar) eta bai gure kultur elkartearen eta bai zenbait herritarrek esanda ikusi genuen orain zela momentua horretarako.

Zenbait harremanen ondoren **Bide Ertzean** musika taldeko Imanol Ubedarekin hitz egin genuen eta hau harremanetan jarri zen Errenteriako **Metrokoadroka kolektiboko Oier Guillanekin** eta **Asier Sarasolarekin**. Enkargua

eman genien bi liburuetako poemak erreztatuz eta musikarekin lagunduz ikuskizun bat ontzeko. Eta denbora gutxitxo izan duten arren, gaur entzuteko aukera paregabea izan dugun emanaldi eder hau sortu dute. Gure aldetik eskerrik asko eta zorionak egin duzuen lanagatik. Espero dugu beste aretoetan ere izango dela aukera ikuskizun hau entzuteko.

Joxan Artze Agirrek 1969an hasi eta gaur arte poema-liburu ederrak eta diziplina ezberdineko

artistekin batera ikuskizun zoragarriak utzi dizkigu, ez naiz zerrendatzen hasiko luze joko bailuke. Bere anaiarekin batera txalaparta doinuekin diska bat ere atera zuen 1975ean.

Gauekoa borobiltzeko **Joxan Artzeri** omenaldi xume baina egiazkoa egin nahi diogu. Usurbilgo herriak bakarrik ez, Euskal Herri osoak ere hainbeste ezagutzen, maitatzen eta kantatzen dituen poemak idatzi dituen poetari. Berrizaitlea, ausarta, liburuaren mugak hausten dituena, kritikoa, hunkigarria, goxoa, maitagarria...

75 urte beteak dituzu eta sortzen eta lanean gogoz ari zara. Zorionak orain dela egun batzuk **Espainiako Literatur Kritikarien Elkarteak** iazko euskarazko poesia liburu onenaren saria eman dizulako. Badakigu azkeneko urteetan idatzi dituzun poema asko dituzula sailkatzeko, elkarrekin lotzeko eta liburutuan jartzeko. Txalapartari buruzko saiakera bat ere idazten ari omen zara. Liburu horien irrikaz zain gelditzen gara.

Mila esker **Jexux Artze Kultur Elkartearen** izenean.

Eta larunbatean, komedia kutsua duen "Hiru" antzezlanaren Sutegin

Ikasketak bukatu zituztenetik elkar ikusi ez duten hiru emakumeren istorioa kontatzen da "Hiru" komedian. Loli Astoreka, Miren Gojenola eta Ana Elordik jokatuko dituzte hiru emakume horien paperak. Lagun minak hirurak: 30 urte elkar ikusi gabe egon eta gero, berriro bildu dira. Eta ama izateko ametsak batuko ditu.



Txaro, Mertxe eta Angela, obrako protagonistak, 50 urte

betetzekotan dira eta ama izateko ametsa ez dute bete

oraindik: horri heldu diote hiruak, eta amesturiko gizona-

rekin egin dute topo, Joxe Ramonekin (Zuhaitz Gurrutxaga aktorea eta kantaria). Ama izateko helburua lortuko duten ala ez, ez dugu azalduko hemen, baina antzezlanaren ikusi dutenei entzun diegunez, barre ugari egingo dugu "Hiru" komediarekin.

Maiatzak 10 larunbata

- 22:00etan, Sutegin
- Sarrera: 10 euro Sutegin, alde aurretik 8 eurotan Lizardin.
- Antolatzailea: Jexux Artze K. E

Preferenteen futbol taldea, Ohorezko Mailara igotzetik partida bakarrera

Asteotan bi final handi jokatu behar zituzten. Bi neurketa erabakigarri, bietan nagusituta Ohorezko Mailara igoko baitira. Bat, joan den larunbatekoa, irabazi dute, eta bigarrena, igande arratsalde honetan jokatu dute, 17:00etan Donostiako Berion, Santo Tomas Lizeoaren aurka. Preferenteen futbol taldeak lehen postua erdieste du helburu. Hitzordu garrantzitsu honen atarian elkarriketatu dugu taldeko entrenatzaile Mikel Roteta. Ilusionaturik daude, bizitzen ari diren une gozo honekin.



Ohorezko Mailara igotzea eskura du preferenteko futbol taldeak.

“Denon bultzada behar dugu”

NOAUA! Usurbil FT-tik zaletuz bete nahi duzue autobusa igandean. Animatu herritarrak Beriora.

Mikel Roteta: Lehenbizi Federazioari esan nahi nioke, aurrez hobeto pentsatuta finkatzeko ordutegiak, Realak eta Athleticek jokatu baitute igandean. Baina aukera zoragarria izango da igande honetakoa, denon artean Usurbil gorago eramateko. Denen bultzada behar dugu.

Irabaziz gero zer?

Irabazita, Ohorezko Mailara igoko litzateke taldea, maila oso ona da. Jokalariak eskertuko dute maila horretan jokatzeko. Gogorra, baina oso maila polita da. Bigarren gertzen bagara, bi promozio partida gehiago izango ditugu. Orduan, pentsatuko dugu zer egin. Baina buruan, lehenbiziko postua erdieste dugu. Horretarako lan egin dugu eta gainera, merezi dugu.

Igandean Beriora

Usurbildarrek igandean 17:00etan, Berio-ko zelaian jokatu duten final handira joateko autobusak antolatzeko asmoa du Usurbil Futbol Taldeak: “Autobusean izen emateko modua www.noaua.com web orriko Komunitatearen bitartez informatzen joango gara. Atera kamiseta gorriak armairutik eta etorri taldea animatzera!”, luzatu dute gonbita.

Usurbilgo Pilota Txapelketa

Maiatzak 10 larunbata
Goizeko 11:00etan Usurbilen
 Barandiaran-Andueza / Rezusta-Iñarra
 (Astigarraga) (Bergara)

Jauregi-Aranburu / Azketa-Atxa
 (Erretereria) (Zegama)

Maiatzak 11 igandea
Goizeko 11:00etan Aginagan
 Urkizu-Aizpitarte / Errasti-Elola
 (Hernani) (Usurbil)

Ezkurdia-Bergera / Eskudero-Elustondo
 (Irurtzun) (Andoain)

Zer moduz dago taldea animu aldetik, final handi honen atarian?

Mikel Roteta: Lehengo astean bezala. Aurreko larunbatean final itxia genuen, irabazi egin behar baikenuen nahi eta nahiez. Hori lortu ondoren, orain beste finala dugu. Azkenekoa da, eta horretan pentsatzen ari gara. Mutilak oso ilusionatuak daude. Jendea gogo handiz eta egia esan, denboraldi zoragarri bat bukatzeko aukera dugu.

Ilusio eta tentsio puntua ere nahastuko dira, bi final handi segidan gainditu beharra izanda?

Bigarren itzuli oso ona egin dugu, baina nabari da, azkeneko partida honetan jendeak tentsio puntu handiagoa duela. Batez ere gazteek sumatzen dute pixka bat. Larunbatean, hasierako urduritasuna kenduta, partida oso ona egin genuen, irabazi genuen. Datorren iganderako zerbait ikasi dugu, eta balio izatea espero dut.

Santo Tomas Lizeoa izango da lehiakide. Zer moduzkoa izango da talde honen aurkako finala?

Beraiek ere jaisteko aukera dute galtzen badute, beste emaitza batzuegatik. Baina guk geureari begiratu beharra diogu. Bigarren itzuli osoan, geure buruari begiratu diogu eta oso ondo joan zaigu. Taldea oso ondo dago, topera dabil. Inorri begiratu gabe, gure partida jokatzera joango gara igandean. Ondo landuta, burua galdu gabe, baina konfiantza handiz. Partida irabaztera joateko motibazioa soberan dugu.

Bigarren itzulia oso ona izan da, nondik dator balorazio on hori?

Lehen itzulian, bizpahiru jokalarri lesionatu ziren, eta forma hartzea kosta zitzairen. Lan ona egiten genuen baina zorte ona falta izan zitzaigun partida batzuetan. Taldeak oso ondo jarraitu du lanean eta bigarren itzulian dena nahastu da, jokalarri guztiak egon direla prest, edozein ateratzen zen eta ez zen nabaritzen. Zorte puntu hori gure alde izan da, eta gero, eurek sinistu dute aukera zutezela. Horregatik guztiagatik iritsi gara honaino.

Hirugarren denboraldia hau zuretzat.

Lehenengo urtean nola bukatu genuen ikusita, esperantza eta ilusioa eman zidan hobetzen jarraitzeko. Iaz, ondo ibili ginen, baina aurrekoekin lehiatzeko puntu hori falta zitzaigun. Aurtengo denboraldia zoragarria izan da. Jokalari denak maila onean egon dira. Eserlekuan gelditzen direnak ateratakoan, bere maila oso ona eman dute eta piloa lagundu digute. Denen ekarpenek ekarri gaituzte hona.

Pausoz pauso, lan eginez, emaitzak heltzen dira azkenean.

Futboleant, zailena horixe izaten da. Talde batek beti izaten ditu une txarrak, baina aurten, lehen itzulian lehenbiziko sailkatuarengandik zortzi puntura ginen. Taldeak ordea sinestu egin du, lanean jarraitu du. Egunerokoan, ederra da ikustea nola gozatzuten duten entrenamendu saioekin, eta hori azkenean emaitzetan islatu da.

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Usurbilen jokatuako dira eskubaloiko senior mailako igoera faseak



Albiste ezinhobea 50 urte bete berri dituen Usurbil Kirol Elkartearentzat.

Usurbil Kirol Elkarteak estatu mailakoak izango diren txapelketa garrantzitsuak Oiarde Kirolegian antolatuzko eginiko eskaera aintzatzat hartu du Espainiako Federazioak. Albiste ezin hobea eskubaloiko taldeen bilguneko kideentzat, baita zaletuentzat ere. Senior neska eta mutilen etxeko babesak izango dute eta, maiatzaren 16tik 18ra jokatu diren txapelketa garrantzitsuak hauek; senior mutilak 2. nazional mailatik lehenengora eta senior nesken taldea, zilarrezko ohorezko mailara igotzeko lehiatu dira hurrengo asteburuan.

Txoko ezberdinetatik etorritako taldeen topalekua izango da udalerrri hau. Senior neskei dagokionez, Euskadiko txapelkunordeak, kanariarrak, galizarrak eta nafarrak izango dituzte aurkari. Senior mutilak, asturiarrak, kanariarrak eta galizarrak.

Sektoreen asteburua

Senior mutilen kasuan, Estatu mailako txapelketari loturiko sei sektore desberdin jokatu dira maiatzaren 16tik 18ra. Sektoreetako bat, "B" hizkiduna, Usurbilen. A sektorea Pontevedran (Galiza), C eta D Bartzelonan (Herrialde Katalanak), E Ciudad Realen eta F Granadan. Senior nesken kasuan, A sektorea Vigon (Galiza), B Usurbilen, C eta D Bartzelonan

(Herrialde Katalanak), eta E eta F Valentzian.

Igoera faseak, maiatzaren 18an amaituko dira. Udalerrri honetako urteko jai egun nagusian; XXXIII. Sagar-don Egunean.

Senior neskek

Maiatzak 16, ostirala

Usurbil K.E.-C.D. Tahiche S.D. Lagunak-BM. Rasoeiro

Maiatzak 17, larunbata

S.D. Lagunak-C.D. Tahiche BM. Rasoeiro-Usurbil K.E.

Maiatzak 18, igandea

C.D. Tahiche-BM. Rasoeiro Usurbil K.E.-S.D. Lagunak

Senior mutilak

Maiatzak 16, ostirala

Ucin Aluminio Usurbil- Pto. del Carmen Ed Poio Artai-Cron. Base Oviedo

Maiatzak 17, larunbata

Ed Poio Artai-Pto. del Carmen Cron. Base Oviedo-Ucin Aluminio Usurbil

Maiatzak 18, igandea

Pto. del Carmen-Cron. Base Oviedo Ucin Aluminio Usurbil-Ed Poio Artai

I. Jon Uribe Pala Txapelketako irabazleak

Amaitu berri da, urte hasieran gure artean joan zen gazte usurbildarraren omenez Akerra Gazte-txeak antolatutako txapelketa. Apirilko azken asteburuan jokatu zen mutilen txapelketako finala, Xabier Zubeldia eta Beñat Lorenzo herritarren artean. Zubeldia garaile; azken emaitza, 22-19. Eguraldi txarragatik bertan behera geratu zen nesken txapelketako finala. Atzeratu egin du, kirol ekimen honetako antolatzaile diren Txokoaldeko Akerra Gazte-txeko kideek. Azken neurtza hau aurrerago jokatu dela iragarri dute. Emandako laguntzagatik,



antolatzaileek eskerrak helarazi nahi dizkiete Xarrea eta Aitzaga tabernei.

Pala txapelketan parte hartzeko epea datorren astean itxiko da

Usurbilgo Pilota Elkarteak 18 urtetik gorako emakumezko zein gizonezkoentzat antolatutako kirol ekimenerako izen ematea, datorren astean itxiko dute.

Bete beharreko baldintzak:

- 2 pilotarien izenak eman behar dira.
- Gizonezkoen mailan paleta gomaz jokatu da. Partidak: Astearte arratsaldetan 19:30tatik aurrera izango dira. Lehiaketa sistema bikote kopuruaren arabera zehaztuko da.
- Izen ematea: Azken eguna maiatzaren 14a, asteazkena. Egun hortan 19:00tan bilera egingo da herriko frontoian.
- Emakumeen mailan teniseko pelotarekin jokatu da. Partidak: Astelehen, astearte edo ostegunetan 19:30tatik aurrera izango dira. Lehiaketa sistema bikote kopuruaren arabera zehaztuko da.
- Izen ematea: Maiatzaren 16a, ostirala, azken eguna. Izen emateko 626110923 deitu edo helbide honetara idatzi: huizip@gmail.com

Eskubaloia Oiardon

Maiatzak 10, larunbata

9:30 Alebin mutilak: Udarregi 5B-Udarregi 5A

11:00 Infantil mutilak, finalerdia:

Amenabar A-Bidasoa Irun B

12:30 Infantil mutilak, finalerdia:

Ereintza A-Deca Elgoibar

18:00 Jubenil neskek: Usurbil K.E.-Bera Bera

Maiatzak 11, igandea

11:30 Kadete neskek: Gipuzkoako selekzioaren entrenamendua. Estitxu Berasategi, Ane Irazabal eta Eider Makazagaren parte hartzea.

12:00 Jubenil mutilak Urnietan:

Usurbil KE-Hondarribia

Futbola Haranen

Maiatzak 10, larunbata

15:30 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Vasconia

Iñaki Añorga, garaile

Apirilaren 27an Amasan ospatu zen XXII. Loatzoko Igoera-Jaitsiera proba amaitzen lehena izan zen Baxurde Txiki Triatloi Taldeko kidea. Guztira, 9,73 kilometrotako ibilbidea osatu behar zuten lehiakideek. Bi datu, igoera zenbat metrotakoa zen kalkulatzeko. Amasako plaza 90 metrotara dago, Loatzoko gaina 631 metrotara.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza polit bat eskaintzen da erdigunean. Zuzenean nagusiaren kint hitz egin. 605 752 667.

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukalde. 156.000€ Tel. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000€ e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kale-fakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitxi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobea. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 ml ur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetetako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxebizitza bat partekatzeko pertsona arduratsu baten bila nabil, Usurbil-en. Tel. 695 425 731.

Gela bat alokatzen dut. Prezio interesgarria. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570€. 2 logela, 2 hila-beteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600€. 2 hila-beteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarriletik aurrera. Fidantza gehi 2 hila-bete aurreratuak. 630€

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gastu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukalde, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

MOTORRA**salmenta,
garajeak**

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenean 10ean. Tel. 620 024 663.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratuak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa. Telefono zenbakia: 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Interna edo externa moduan lan egingo nuke, haurrekin edo adin-eko jendearrekin. Esperientziarekin. 634 044 532

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titularekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zain-

tzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 727 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketa eta ostalaritzan) 698322406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest: LHn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxilergoan ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Erizaintza laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbi-

ketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxe lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxe lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrek eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzean eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaille moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrek ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordu-tegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintza graduatua naiz eta gaitxo dauden pertsoneri erizaintza zainketak emateko prest nengo. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza graduatuz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakas-kuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizez in-



Zorionak Nora!
Maiatzaren 11n 7 urte beteko dituzu. Oso ondo pasa eta muxu asko ibai eta Maddiren partez.



Zorionak Malentxu!
Aurtengoan 6 kandela izango dira. Ondo pasa. Muxu erraldoi bat aitatxo, amatxo eta Nahian partez.



Zorionak Izar!
Maiatzaren 4an 6 urte bete dituzu. Zorionak Agiñako ikasle eta irakasle-entzuten partetik.



Zorionak Marke!
Maiatzaren 2an 4 urte beteko dituzu. Muxu handi bat zure familiaren partez.

arratsalde. Irakaskuntzan diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituz-

ten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo internan moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketari lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketarako. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzordua asteleheneretan 18:00-20:00)

BESTELAKOAK

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40 (Aitor).

Oxelo markako patinete bat galdu dut. Beltza eta arrosa. Askatasuna plazan. Aurkitzen duenak Patrira eraman, edo deitu 943 507 230.

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lursail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpurua. Tel. 606 525 707.

Niki txuri manga luze bat galdu dugu Erreka Txiki inguruan. Katu baten marrazkia eta perlatxoak ditu. Aurkitu baduzu, deitu 943 37 04 03 telefono zenbakira.

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxepribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzean, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu badu-

zu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Valentziako mandarina ekologikoa salgai. 1€ kilo. Bitartekariarik gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko suak salgai. Bi urte ditut eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

lotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingo da. 637974994

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udalzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak maiatzak 1-maiatzak 11

Osteguna	8	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala	9	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Larunbata	10	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Igandea	11	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Astelehena	12	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Astearte	13	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Asteazkena	14	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte

Osteguna	15	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Ostirala	16	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata	17	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea	18	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8
Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda maiatza

9 ostirala

- **Il. Sagastiak Loretan: sagar muztio dastaketa eta sagardoa dastatzen ikastea.** Guillermo Castaños enologoarekin. 19:00etan Usurbilgo Gaztetxean.
- **"Asier eta biok"** filma, 22:00etan Sutegin. 3 euro. Aldez aurretik 3, Lizardi dendan.

10 larunbata

- **Il. Sagastiak Loretan: Sariaaundira bisita gidatua** 17:30ean.
- **"Hiru" antzezlanak:** 22:00etan Sutegin. 10 euro. Aldez aurretik 8, Lizardi dendan.
- **Izeberg taldearen diska aurkezpena:** 23:00etan Sutegin.

11 igandea

- **Pilotakadaz pilotakada** ekimena frontoian. 11:00etatik aurrera.

Sagardoa dastatzen ikasteko aukera aparta, Guillermo Castaños enologoarekin

Hamar eta hamairu grado artean kontsumitzea komeni da, ireki aurretik botila buruz behera jarri eta astindu behar da sagardoa homogeneizatzeko, trago batean edango den sagardo kopurua zerbitzatu aldiro, behin botila irekita denbora tarte laburrean kontsumitzea komeni da, toki fresko eta ilunean gorde... Horrelako aholkuak ezagunak zaizkigu. Honakoan ordea, enologo baten eskutik, hobeto ezagutu ahal izango ditugu dastatzearen inguruko sekretu guztiak. Sagar muztioa eta sagardoa dastatzen ikasteko aukera aparta beraz, ostiral honetakoa.

Maiatzak 9, ostirala

19:00 Sagar muztio dastaketa eta sagardoa dastatzen ikastea, Usurbilgo Gaztetxean. Guillermo Castaños enologoaren laguntzarekin.



Guillermo Castaños enologoak gidatuko du ikastaroa.

Gurasoentzat hitzaldi interesgarria Zubietan

"Nola hitz egin zure seme/alabak entzun diezazun, eta nola entzun zure seme/alabak hitz egin diezazun" izeneko solasaldia, maiatzaren 8an, 14:30etatik aurrera Zubietako frontoi atzealdeko Kaxkape egoitzan. Nerea Mendizabalek bideratuko du, Eskola Txikiko Guraso Elkarteak antolatutako saioa.

Urteurreneko afari begano berezia

Afari begano mexikarra prestatuko dute maiatzeko bigarren ostegun honetan, maiatzaren 8an, ohi baino lehenago, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Usurbilgo Gaztetxean. Afari berezia, baita afalaurre eta afalostea ere, Butterflai kantautore libertarioarekin eta Ana Marti bakarlari madrildarrak girotua.

Datozenak

Film-solasaldiak, jubilatuei eskainiak

"La vida empieza hoy" eta "Si de verdad quieres" filmak proiektatu eta pelikula hauen inguruko solasaldiak antolatuko ditu Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak datozen asteotarako. Jubilatuei zuzendutako egongo diren hitzorduak, Artzabal, Aginagako Arrate eta Santueneko jubilatuen egoitzetan ospatuko dira.

Zahartzaroa eta sexualitatea lotuko ditu film-solasaldien zikloak. Bizitzako etapa honetako aldaketa berrietara egokitu edota zahartzaroko bikote-harremanen apustu berriez jardungo dute, gai hauek jorratzen dituzten aipaturiko bi filmen proiektzioak baliatuta.

Maiatzak 14, asteazkena

16:00-18:30 Film-solasaldia Aginagan: "La vida empieza hoy".

Maiatzak 21, asteazkena

16:00-18:30 Film-solasaldia Artzabalen: "La vida empieza hoy".

Maiatzak 28, asteazkena

16:00-18:30 Film-solasaldia Santuenean: "La vida empieza hoy".

Ekainak 11, asteazkena

16:00-18:30 Film-solasaldia Artzabalen: "Si de verdad quieres".

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak

943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Josue
Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL



LASARTE-USURBIL INSTITUTUA

Zure
au  era



- **D.B.H.**
- **BATXILERRA**

AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 5tik 15era



lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

www.instilasarte.hezkuntza.net

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi,

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



EDERTU ZAITEZ!



Loli Lizarralde
ESTILISTA

ESTETIKA TARIFAK

- Aurpegi garbiketa 30€
- Manikura + esfoliazioa 9€
- Pedikura 15€
- Bekainak edo ezpaingaina 4€
- Besapeak edo ingreak 5€
- Hanka erdiak 12€
- Hanka osoak 16€
- Gorputzeko esfoliazioa eta masajea 28€
- Gelezko azkazalak 40€

Zubiaurrena, 5B USURBIL 943 361 971



Jwar
ESTETIKA

**EZKONDUKO ZARA?
EMAZTEGAI TRATAMENDU BEREZIAK
TRATAMENDU KOKTEL EZBERDINAK**

munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

artzabal baserria 626603600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



WELLA -ren eskutik,
ILLUMINA KOLORAZIOA:
Kolorazio munduan eman den pauso handienetakoa

- ✓ Ilean, beste edozein koloraziok baino %70 gehiago islatzen du argia
- ✓ %100 estaltzen duten koloreak
- ✓ Babes handiagoa duten kolore naturalagoak

Eta gainera,
AMONIAKORIK GABEKO
kolorazioa ere aukeran!

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekia! Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462

Berria!



GOLDWELL
ELUMEN

m

ileapaindegia

mistoa

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

9.00etatik 19.00etara zabalik
Zubiaurrena 4 • 943 361 951